

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AÑANAKO KUADRILLA

Jendaurrean jartzea Añana, Armiñon, Berantevilla, Iruña Oka, Kuartango, Lantaron, Erriberagoitia, Erriberabeitia, Gaubea eta Zanbranako udalerrietan hiri hondakinak biltzeko zerbitzuaren 2017ko lehen sei hilekoko tasa ordaindu behar dutenen errolda, eta ordainagiriak borondatezko ordaintzeko epea hastea

Añana, Armiñon, Berantevilla, Iruña Oka, Kuartango, Lantaron, Erriberagoitia, Erriberabeitia, Gaubea eta Zanbranako udalerrietan hiri hondakinak biltzeko zerbitzuaren 2017ko lehen sei hilekoko tasa ordaindu behar dutenen errolda osatu da, eta 2017ko martxoaren 15eko ebazpen baten bidez onartu. Iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamabost egun baliodun jarriko da jendaurrean errolda, interesdunek aztertu eta egokiak iruditutako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Interesa dutenek Añanako Kuadrillaren egoitzan (Foruen plaza, 11 – 01213 Rivabellosa - Araba) aztertu ahal izango dute espedientea, 10:00etatik 13:00etara, bai eta adierazi diren udal-letako bulegoetan ere.

Kontribuzio errolda jendaurrean jartzean, hura osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek, Arabako zergenak, 98. artikulua 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera; dena den, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak kuadrillaren lehendakariari aurkeztuko zaizkio, gorago aipatutako epeetan.

Borondatezko epean kobratzeko aldia 2017ko apirilaren 18an hasi eta ekainaren 17an bukatuko da, egun bi horiek barne direla.

Tasaren ordainketa helbideratuta daukatenei 2017ko maiatzaren 3an kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek Kutxabanken bulegoetan ordainduko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo, bestela, Vitalneten bidez. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo dute udal bulegoek.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Añanako Kuadrillak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Borondatezko epean ordainketarik egin ez bada, premiamendu bideari emango zaio hasiera eta kobratu beharrekoari dagokion errekargua aplikatuko zaio, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek, Arabako zergenak, 28. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Ribabellosa, 2017ko martxoaren 15a

Lehendakaria

EDUARDO FERNÁNDEZ DE PINEDO GONZÁLEZ